

La apertura

Humberto Unzueta

Deia. Diario de Araba, 2004-10-05: 1.

Euskalgintza eta euskal kultura doluz jantzita dago atzoz geroztik. Martin Ugalde kazetaria, idazlea eta euskaltzalea atzo goizaldean hil zen Andoain bere jaioterrian, azken urteotan etxean eduki duen gaixotasun larri baten ondorioz, 83 urte zituela. Gerra Zibiletik eta frankismotik ihesi erbestearen latza bere larruan probatua, Martin Ugaldek euskararen aldeko lan oparoa eginez itzuli zion Euskal Herriari bere desterruaren ordaina, batik bat Venezuelan. Han, Caracasen kazetari lan ugari egin zuen eta Euzko Gaztediren sortzaile izan zen, eta baita EAJko erbesteko lehendakari ere. Batik bat kazetaritzat zuen bere burua –DEIAREN sortzaileetako bat izan zen eta baita "Euskaldunon Egunkaria"koa– baina idazle gisa ere uzta emankorra utzi du, 70etik gora titulu, hla saiakeran, nola eleberri eta ipuingintzan. Azken honetan, maisu izan zen euskal narratiban erreferente izateraino. Martin Ugalde gizon konprometitua zen, artikuluak idatziz eta euskararen edo kulturaren inguruko proiektuak sustatuz bere biografia egunero eraikitzen zuen hoietarikoa. Letraduna eta pentsalaria ezezik, politikan ere jardundakoa da, lehenbizi eta luzaz EAJn eta gero EAn, 1982tik 1985era Jaurlaritzako Kultura sailburuorde izatera iritsi zelarik. Hitz gutxitan, eredu bat euskalgintzan eta herrigintzan.